



6 UDAL MUGARTEAREN LURZORU URBANIZAEZIN

6.1 INDARREAN DAGOEN HAPOAREN LURZORU URBANIZAEZINEN KATEGORIAK

Jarraian indarrean dagoen HAPOaren Lurzoru Urbanizaezina lantzen eta baloratzen da, HAPOaren Aurrerapenaren berrikusketan kontutan hartzerako orduan:

- Indarrean dagoen HAPOak 22.209,48ha-ko gainazala klasifikatzen du Lurzoru Urbanizaezin eta erantsitako Sistema Orokor bezala (udalerrriaren %80,5a). %11,84 (2.630,09ha) babes bereziko erregimen baten menpe daude, bitartean %79,62a (17.682,35ha) bere balio natural, basoko, paisajistoko eta nekazaritzagatik babestea beharrezkoa ikusten da. Gainontzeko lurzoru urbanizaezina erantsitako sistema orokor desberdinei dagokio.
- Definitutako tipologiak hurrengoak dira:
 - **Babestutako Lurzoru Urbanizaezina**, bere lurzoruei buruz aritzen dela bere kalitateengatik, potentziatu behar den funtzio bat dauka. Bi mota desberdinetan nagusiki bereizten dira, dagokion azpi-motekin:
 - **Babes bereziko lurzoruak**: babes bereziko erregimen baten menpe daudenak bateraezina direnak hitzarmenaren transformazioarekin, lurralde antolamendu planekin edo legeria sektorialarekin. Hurrengo arrazoiengatik: balio paisajistikoak, historikoak, arkeologikoak, zientifikoak, ingurumenak edo kulturalak, plangintza sektorialean aipatutako arrisku naturalengatik, bere mugen euskarriaren menpe edo jabetza publikoaren babeserako zortasunengatik.
 - Ingurumena (EP-MA)
 - Arkeologikoa (EP-AQ)
 - Gainazaleko Urak (EP-AS)
 - Uholdegarriezinak (EP-IN)
 - Bide sarea (EP-RV)
 - Trenbide sarea (EP-RF)
 - **Lurzoruak balio eremuak bezala**: plangintza orokorrean bere nekazaritza, basoko, abeltzaintza edo naturaren aberastasunak babesteko beharra kontsideratzen dutenak.
 - Naturala: 1 maila (AV-N1)
 - Naturala: 2 maila (AV-N2)
 - Basokoa (AV-FO)
 - Nekazaritza Paisajistikoa (AV-AP)
 - Nekazaritza (AV-AG)
 - Nekazaritza balio bereziko (AV-AE)



- o **Sistema orokorrak lurzoru urbanizaezinera esleituta:** ekipamendu komunitarioak, oinarrizko azpiegiturak eta hiri zerbitzu handiak, eta garraioak.
- *Ingurumen Babes Bereziko Lurzoruetan eta Balio Eremuko Lurzoruetan* oinarrituz, esan daiteke banaketa nahiko koherentea aurkezten dutela Nekazaritza eta Abeltzaintza LPSari dagokionez, Nekazaritza Balio Eremuetan (AV-AG) oinarrituz eta Vitoria-Gasteizko eraztun baten inguruan, eta aldi berean, Nekazaritza Balio Paisajistikoaz (AV-AP) inguratuta. Nekazaritza eta Abeltzaintza kategoriekin bat egiten dute, LPSaren Balio Estrategiko Altuarena eta Trantsiziozko Landa Paisaiarena hurrenez hurren, baina zenbait desberdintasunekin.

Nekazaritza balio bereziko kategoria, egiturazko xedapen-aldaketa baten bitartez sartu zen geroztik, nekazal-elikagai industriarako lurzoru lur urbaezinean garatu ahal izateko, kategoria berri honen bitartez. (ALHAO 2013-10-30). Araudi honi esker posiblea da leku zehatzetan, nekazal elikagai industriak garatzea, nekazarien ekoizpenaren hurbil dauden lekuetan, lehen mailako sektoreko lehengaietara lotuta bait daude.

Urrunago Basogintza Balioa eta Balio Naturaleko eremuak daude, hurrengo kategoriako eremu geografiko antzekoekin: Basokoa, Basoa-Mendi Barbana eta LPS definitutako Ingurumen hobekuntza.

Ingurumen Babes Bereziko Lurzoruak (EP-MA) mugatuak daude bakarrik Salburuako KBE-HBBE-ko lurraldeei dagokionak (ez osoa) eta Zadorra ibaiaren tarte batzuei, hiriko nukleo printzipalaren goiko partean.

Hala ere, Gainazaleko Urak babes kategorian (EP-AS), drainatze naturalaren sare osoa sartzen da, eta bereziki, Zadorra ibaiaren ibilbide parte bat KBEn sartuta dagoena. Alde honetatik, ingurumen babes bereziko lurzoruak, hunkitutako lurralde talde osoa hartu behar du biodibertsitate kontserbaziorako, ondoren azaltzen den bezala.

Erantsitako taulan, HAPOan aipatutako gainazal okupatuen tipologiak aurkezten dira:

INGURUMEN BABESARAKO LEU TIPOLOGIAK ETA BALIO EREMUAK		
KATEGORIA	KATEGORIA	KATEGORIA
Babes Berezia. Ingurumena (EP-MA)	129,7	0,6%
Babes Berezia. Gainazaleko Urak (EP-AS)	905,1	4,5%
Balio Naturala. 1. maila(AV-N1)	704,0	3,5%
Balio Naturala. 2. maila (AV-N2)	6.495,7	32,2%
Basokoa (AV-FO)	3.899,0	19,3%
Nekazaritza paisajistikoa (AV-AP)	2.199,7	10,9%
Nekazaritza (AV-AG)	5.858,7	29,0%

LPSren lurzoru guztiak (%58,2), iraunaldian dagoen HAPOren balio natural eta basoko balioaren eremu antzekoa da (%55). Gauza bera gertatzen da, LPSn Nekazaritzako eta Abeltzaintzako kategorietan (%40,1), HAPOan dauden kategoria berdinekin konparatuz (%39,9).



6.2 AFEKZIO NAGUSIENAK EDO LEU IGARRITAKO ARAZOAK

Jarraian, udalerrriaren Lurzoru Urbanizaezinaren afekzio eta somatutako arazo nagusien sintesia batu da. Erabilera eta inpaktu puntualengandik zein gainontzeko erabilera eta jarduera puntaletik ondorioztatuta, ondorengo dokumentu eta ikerketetan aipatuak: “Vitoria-Gasteizko udalerrian biodibertsitatea mantentzeko estrategia”, “ibaien leheneratzea inguru herritarretan: Zadorra ibaiaren kasu Vitoria-Gasteizen”, “Ingurumen eta iraunkortasuneko txosten diagnostikoa” eta Vitoria-Gasteizko barne-lan txostenak, hala nola “sute arriskua baso guneetan: lan metodologia” eta hirigintza diagnostikoko koadernoak HAPOaren aurrerapena lantzeko, Bulego Teknikoak landuak.

- Zatiketa, homogeinizazio eta espazio naturalen zaharkitzeagatiko biodibertsitate galera.
- Erreken jabari hidraulikoaren okupazioa baratzen ordez.
- Erribera flora eta ur ibilbideen hiri barruko okupazioa, azpiegitura, nekazal eta abeltzaintza hazteak edo ustiapenak, zaborteziak etab-gatik zati erdi eta baxuen galera.
- Landazabal eta lautadaren paisai aldaketa, hiriaren hazkundeagatik eta batez ere, herrien inguruan.
- Herrien hazkundera, identitatearen galera suposatzen duena.
- Laborantza ustiapen murrizketa eta ganaduko murrizketa.
- Eremuko ibaien ur kalitate txarra orokorra hiri barruko, industria, ongarri, zomorro botika etab. isurkinengatik.
- Hiri saneamenduko sistema eta hondakin-urak tratatzeko instalazio eza.
- Lurzoruaren kutsadura barreiatua ongarriketa eta zomorro-botikengatik nekazaritzako zonaldeetan.
- Higidura prozesuak, landaredi eskaseko zonaldeetan.
- Zabortezi eta zabortezi ilegalen existentzia, batzuk ur ibilbideetan biztanleri guneen aldamenean. Eremuaren inpaktu handienetarikoa osatuz.
- “Galtzeko zorian” dauden fauna eta flora espeziei mehatxuak bere habitat desegiten direlako eta min zuzenengatik.
- Motor-ibilgailuen kontrolatu gabeko sarbideak (quads eta trialeko motorrak) baso pista eta mendi zeharka.
- Hesien eta erriberako landarediaren desagerpena, fauna eta florarako korridore ekologiko eginkizun garrantzitsuarekin.
- Nukleoen inguruko kalitate paisajistikoaren murrizketa.
- Suteak eta erretze kontrolaezinak.
- Mendietako gailurrean telekomunikazio azpiegituren hazkundeagatik sortutako inpaktu paisajistikoak.



Aurreko ataletik ondorioztatzen da, antolamenduren LEU ez dagoela oso desfasatua, aspektu kontzeptual desberdinetan egokitu behar da eta bereziki, zonaldeen mugak, udalerriz gaindiko plangintzaren instrumentu zehatzekin bateragarritasuna lortzeko, eta bereziki, Nekazaritza eta Abeltzaintza LPSen helburu eta zehaztapenekin.

LEUren kategorizazioa, kontutan izango du gainera, beste babes eta/edo kontserbazio zehatzen planen muga eta zehaztapenak, eremu geografiko zehatzetan onartuak, adibidez hurrengo kasuetan:

- Kudeaketa Planak eta KBE eta HBBE-ko kontserbazio neurriak, Natura 2000 Sarea osatzen dutenak.
- Kudeaketa Planak eta EAEn flora espezie eta mehatxatutako faunaren kontserbaziorako dokumentu teknikoak:
 - Mehatxatutako flora: *Berula erecta*, Zadorra eta Zalla ibaien ibilguetan Aireportuaren hego-mendebaldean.
 - Mehatxatutako fauna, onartutako kudeaketa planarekin: Europar Bisoia (*Mustela lutreola*), Zadorra eta Salburuako ibilguak hartzen duena; Igaraba arrunta (*Lutra lutra*) Zadorraren ibilguan, Uhalde-Enara (*Riparia riparia*) Zadorran ere bai eta bere ibaiadarretan. Katxo (*Squalius pyrenaicus*) arraina Zadorran, Lakuako Ur beheak.
- **Beste interes aspektuak daude, baina lurralde plangintzaren ikuspuntutik lotesleak izan gabe, LEU muga eta kalifikazioan kontutan izan beharko dira.** Inguruneak, ingurumen balio zehatzetan presentzia daukate eta kontserbaziorako arreta berezia izan behar dute, behar izanez gero babes maila maximoa jasoz. Hurrengo kasuetan bezala:
 - 92/43/CEE Zuzendaritzaren I eranskinean eta 42/2007, abenduaren 13ko Legean definitutako **interes komunitarioko habitat naturalak**, *Ondare Natural eta Biodibertsitatearenak*.
HAPOaren Aurrerapen Dokumentuan, kartografia ofizialean oinarrituta, presente dauden habitat motak mugatuko ditu ingurumen babes maximorako kategorietara sartzeko, kontserbazio egoera edo arrisku egoera azaltzen duten gainazaletan.
 - **Interesezko beste landaredi eraketak, kategorian hauetan aurretik sartu ez direnak.** Vitoria-Gasteizko Udallerriaren Landaredi mapatik abiatuta, 1:5000 eskalara, ondorioztatutako mapak (kalitatea eta landaredi hauskortasuna) eta dagokion eguneraketa lanak. Zuhaitzen masa hurrengo izan daiteke, gaztea edo degradatua, interesezko sasiak...
- HAPOren Aurrerapen dokumentuan kontutan hartu behar dira, LEU antolamenduak kontserbazio eta ingurumenaren babesarekin erlazioa daukan beste aspektuak kontutan izango ditu. *EAE korridore ekologiko sarearen kasuan, Abiafauna babes zonaldeak linea elektrikoen aurrean (1432/2008 E.D.), edo EAeko interes komunitarioko hegazti nekrofagoen kudeaketa Plana, besteak beste.*
- Vitoria-Gasteizko **Udalaren Ingurugiro Gaietarako Ikastegia** (IGI) landuta, kartografia talde zabala azpimarratzen da eta azterketa tekniko eta zientifikoak. Udallerriaren ingurugiroarekin erlazioatuak, kontutan hartu beharreko informazio iturriak izango dira.



6.3 VITORIA-GASTEIZKO LANDAREDI MAPA ETA MEHATXATUTAKO FLORA

Vitoria-Gasteizko (2001-2002) Ingurugiro Gaietarako Ikastegiaz (IGI) eginda, mapa hau prozesu metodologiko baten ondorioa da bere barnean hegaldiak sartzen dituen: airetik atera ahal izateko argazkiak, digitalizazio, argazkien interpretazioa eta landa lanaren berrikusketa, 1:5.000 eskalako ortografia digital batean lan egiteko. Lan eremua Vitoria-Gasteiz da eta udalerritik 225 metroko perimetroa.

Landaredi mapak informazio geruza bi ditu, bat poligonoen estaldurarako eta bestea puntuez osatuta dagoena. **Poligonoen estalduran landaredi komunitate ezberdinak daude eremuaren gainean identifikatu direnak, berriz, puntuen kasuan, zuhaixka bikainen kokapena aurkezten da bere tamaina eta kokapenaren bidez.** Geruza honetan ere ura aurkitu ahal ditugun tokiak irudikatu dira.

Mapan ortofotoan ezberdintzen diren landaredi mantxak digitalizatzen dira, eta kodifikatu egiten dira berrikuspenarako eta landa lanerako. Poligono bakoitzerako landaredi dominantea eta dominatua ezartzen da, basoan dauden espezieak eta masaren egoera (ebakidurak, birpopulaketa, mendia, fustal, koskorra) eta estalduran dagoen sartzeko lekua (hektarea bat baino handiagoak diren basoko masentzako). Mapan 45 eraketa dauzka hurrengo landaredi komunitatean integratuak:

- Basoak
 - Artadiak eta artederretak (*Quercus ilex* subsp. *ballota*)
 - Erkameztiak (*Quercus* gr. *faginea* e híbridos)
 - Hariztiak
 - Urkiak eta Tenblareak
 - Pagadiak (*Fagus sylvatica*)
 - Erriberako basoak
- Sastrakak
- Belarkara
- Landaredi antropogenoa eta nitrofiloa

Osagarri bezala, **2010.urtean, Ingurugiro Gaietarako Ikastegiak “Vitoria-Gasteizko udalerrian mehatxatutako flora”** agiria idatzi zuen, (Uribe-Echebarría Díaz, P.M., 2010), **udalerririk dauden espezie arraroak eta kalteberak agertzen dira 28 taxoieko zerrenda osatuz.** Beraien banaketa eremua zehazten da, babes estatusa (edo bere erantzuna), bere tamaina eta igartzen diren mehatxuak.

Mehatxatutako 28 taxoietatik, 15 kasutan espezieak arraroak dira: *Arnica montana*, *Carlina acaulis*, *Epipactis palustris*, *Fraxinus ornus*, *Galium boreale*, *Gesnista eliasseanenii*, *Genista micrantha*, *Genista lutea*, *Litorea uniflora*, *Menyanthes trifoliata*, *Osmunda regalis*, *Ranunculus auricomus*, *Scorzonera aristata*, *Sorbus latifolia* eta *Utricularia australis*; bi taxoi kaltebera bezala agertzen direnak: *Betula erecta* y *Senecio carpetanus*; 8 taxoi interes



berezikoak: Himantoglossum hircinum, Ilex aquifolium, Narcissus asturiensis, Narcissus bulbocodium, Narcissus pseudonarcissus, Ophioglossum vulgatum, Paris quadrifolia y Taxus baccata eta desagertzeko zorian dauden bi taxoi: Nymphaea alba y Pentaglottis sempervirens; eta desagertu bezala agertzen den taxoi batez gain (Senecio doronicum)

6.4 LURZORU URBANIZAEZINAREN ANTOLAMENDUA VITORIA-GASTEIZKO HAPOAREN BERRIKUSKETAN.

Lurzoru Urbanizaezineko antolamenduari buruzko dokumentua, 2016.urteko apirilaren 19ko hitzaldi politikoaren eranskinean agertzen da, **hurbilpen metodologiko bat egiten du eta lurzoru urbanizaezinearen sailkapenaren erakusketa bat HAPOaren berrikusketan, azken urteotan agerian jarri diren arazo globalei erantzuteko**. Honela, aldaketa globaleko eszenatoki bat aurkezten da, ondorengo arrazoiengatik ematen dena: fenomenoaren handitzeagatik eta aldaketa klimatikoaren arrazoiengatik, krisiari lotutako arrazoiengatik eta energiaren menpekotasunagatik, biodibertsitatearen galeragatik, ekosistemen zatiketagatik, baliabide naturalen amaieragatik, elikagai produktuen goratzeagatik, etb...

Aldaketa eta arazo hauei erantzuna eman ahal izateko eztabaida berriak kontutan hartzea suposatzen du, erronka berriak planteatzea eta planifikatzea eta ondorioz legeak egin hirigintza zein ingurumenaren ikuspuntutik, hurrengo gaiei buruzkoak: aldaketa klimatikoa, paisaia, espazio naturalen babesa, energi aurrezpena, iraunkortasun erabilera edo baliabide naturalen babesa, etb.

Zentzu honetan aurrerapen handiak egin dira eta gero eta gehiago dira araudiko trenak edo azken urteotan egindako eta onartutako analisiak, Vitoria-Gasteizko Lurzoru Urbanizaezinean aplikatu ahal direnak. **Agiri hauek orokortasun bezala onartzen dituzte ondare natural eta kulturalaren kontserbazioa eta iraunkortasun garapena eta alderdi berriak kontutan hartzen dituzte: paisaiaren babesa, aldaketa klimatikoa, etb... Plan orokor berria esparru berrira egokitu beharko da eta sakondu araudi, plan eta existitzen diren helburu sektorialetan. Bermatu ahal izateko landa ingurunearen babesa maximoa Vitoria-Gasteizko udalerrian.**

Zentzu honetan agiriak **esparru juridikoa** lantzen du (lurralde araua eta ingurumena), Vitoria-Gasteizko esparru kontzeptualaren definizioa azalduz, hiriburuari eta ekosistemen zerbitzuari buruzkoak. Esparru hau Ekosistemen Zerbitzuak eskaintzen duena da, estrategia ezberdinetan ezartzen dena eta esparru hitzarmenetan (Milurteko Ekosistemen Ebaluaketa, Biodibertsitatearen Europar Estrategia, Azpiegitura Berdearen Estrategia, Europa 2020, Iraunkortasun Garapenaren Helburuak eta Aldaketa Klimatikoaren Aurreko Parisen Hitzarmenak...). Guztiak naturaren eta ekosistemen oinarrizko funtzioa agerian jartzen dute, oinarrizko ondasun eta zerbitzuen horniduran eta estrategikoetan, ekonomiaren oparotasuna lortzeko, segurtasuna, osasuna eta gizartearen ongizatea.

Natura kantitatea handitzeko (behar izanez gero berriztatu) eta mantentzeko beharra, ekosistemen zerbitzuak bermatzeko, planen eta udalerriko estrategietan batutako lehenetasunak dira. Erlazionatutako ingurumen izaerakoa, Biodibertsitatearen kontserbaziorako estrategia bezala bereziki.



Milurteko Ekosistemen Ebaluazio (MEE) txostena zerbitzu ekosistemikoak definitzen ditu "gizakiak ekosistemetatik lortzen dituzten onurak" eta lau kategorietan ezberdintzen dira, haietatik oinarri edo habitat zerbitzuko izena dutenak gainontzeko hiru kategorien zerbitzuetarako kontsideratzen dira:

- o **Habitat edo eustarri zerbitzuak:** *"ezinbesteko zerbitzuak ekosistemaren gainontzeko zerbitzuentzako produkziarako". Ekosistemak dira landare eta animalien habitatak, biodibertsitatea eta prozesuak eta dinamika naturalak mantentzen dute.*
 - Espezie eta habitaten kontserbazioa.
 - Lotura ekologikoa.
 - Dibertsitate genetikoaren mantentzea.
- o **Hornikuntza zerbitzuak:** *"ekosistemetatik lorturako produktuak" dira. Besteak beste: elikagaiak, ura, energia, sendagaiak eta mineralak.*
 - Elikadura.
 - Baliabide hidrikoak (gainazal gainekoak eta azpikoak).
 - Egurra /biomasa.
- o **Erregulazio zerbitzuak:** *"ekosistemen erregulazio prozesutik lortutako onurak" dira. Karbonoaren harrapaketa eta biltegitratzea barneratzen ditu, klimaren erregulazioa, ura eta airearen garbiketa, lurzorua eraketa, higaduraren kontrola, uholdeen aurreikuspena, eta gaixotasunen kontrola.*
 - Airearen kalitatea
 - Klimaren erregulazioa (karbonoa atxilotzea).
 - Muturreko gertaeren moderazioa/uholdeak aurreikusi.
 - Higaduraren prebentzioa
 - Lurzorua mantentzea
- o **Zerbitzu kulturalak:** *«ekosistemetatik pertsonak lortzen dituzten onura ez materialak aberastasun espiritualetik, garapen kognitiboa, hausnarketa, birsorkuntza eta esperientzia estetikoak».*
 - Estetika.
 - Aisialdia.
 - Ingurune naturalari sarbidea.
 - Identitate kulturala.
 - Interpretazioa- ezagupena.



Dokumentuaren amaieran **irizpide eta gidallerroendefinizioa** agertzen da, **erabilerak eta jarduerentzako eremu bakoitzean araudi zehatzak jarritz**, dokumentuak arautzen duten matrizeari dagokionez eta Lurzoru Urbanizaezin kategoria bakoitzerako.

Gainera, dokumentazio tekniko eta azterketa osagarrientzako gidallerroak sartzen dira (adibidez, paisaia), erabilera, jarduera eta Lurzoru Urbanizaezinen proiektuei baimena emateko prozesuentzako.